

## Sukaldari eta Garbitzaileak



- www.irakaskuntza.lab.eus
- z.laboralakaraba@lab.eus
- z.laboralakbizkaia@lab.eus
- z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
- z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus

## LEP merezimendu lehiaketaren ondoriozko finkotasunak irailaren 1ean egingo dira

Gaur, abenduak 2, mahai negoziatzailea izan dugu. Hurrengo gaiak landu ditugu:

### LEP merezimendu lehiketa

Hezkuntza Sailak orain arte eta legeak aginduta abenduaren 31n prozesua bukatuko zela esan digu. Gaur guztiak harridurarako finko izaera eta jabetzak irailaren 1era atzeratuko direla esan digute. Hezkuntza sailaren utzikeria eta IVAPen dagoen gainkargaren onurak ezingo dira ordurarte baliatu. Besteak beste, ezingo dira errelebu kontratuak ordura arte eskatu.

LABetik LEP merezimendu lehiaketaren inguruko hainbat galdera mahaigaineratu ditugu. Besteak beste, mediku azterketak egiteko alta egoeran egon behar dela argitu digute, bajan egonez gero, hau atzeratu daitekeelarik. Mediku azterketaren bitartez lanpostuaren funtziek betetzeko gai zarela egiaztu arte ez da finkotasunik lortzen.

Behin mediku azterketa gaindituta, finkotasuna aldiz, baja egoeran sinatu daiteke.

Bestalde, aste honetan behin behineko merituen puntuazioa eta eskaintzen diren lanpostuen zerrendak argitaratuko dituzte.

Erreklamazio epea bukatu ostean eta behin betiko zerrendak argitaratuta, Hezkuntza sailak lanpostuen esleipen prozesua modu presentzialean egitea nahi du.

### Lekualdatze lehiaketa

Indarrean dagoen Lan hitzarmenean leku aldatze lehiaketa urtean behin egin behar dela zehazten badu ere, 2021etik ez da egin. Gaurkoan Leku aldatzea egin behar dela eskatuz mobilizatu gara eta mahaian ere berdina exijitu diogu. Hezkuntza sailak esan digu ez dituela hutsik dauden lanpostu guztiak eskainiko baizik eta LEP prozesuan konprometituta ez dauden lanpostuekin egindo duela.



## Lan hitzarmen berria

Lan hitzarmenaren zirriborroa bidali digute, eranskin batzuen faltan, besteak beste, kategoria eta ordainsarien ingurukoak. LABetik lan hitzarmena negoziatzeko egutegia eskatu dugu eta abenduaren 9an zirriborro guztia eta egutegia bidaliko digitela esan dute. LABek lan hitzarmen berrian txertatzeko gaiak zehaztuta ditugu **HEMEN**.

## Hurrengo LEP eskaintza

Hezkuntza sailak 34 lanpostu berriren eskaintza egingo duela iragarri digu. 2023 eta 2024an jubilazio, ezgaitasunengatik,...hutsik geratu diren lanpostuak dira. laz egin zen eskaintza ere kontuan hartuz guztira 72 lanpostu eskaintza daukagi mahai gainean, garkiketan 33 eta sukaldetan 39.

**Edozein zalantza baduzu jarri gurekin harremanetan.**

...  
**BACARA** *zurekin* **BACARA** *Un sindicalismo diferente*



## Sukaldari eta Garbitzaileak



www.irakaskuntza.lab.eus  
z.laboralakaraba@lab.eus  
z.laboralakbizkaia@lab.eus  
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus  
z.laboralakgipuzkoal@lab.eus

## Las fijezas de la OPE del concurso de méritos se realizarán el 1 de septiembre

Hoy, 2 de diciembre, hemos tenido mesa negociadora.

### Concurso de méritos

El Departamento de Educación hasta ahora nos había dicho que por imperativo legal el 31 de diciembre finalizaría el proceso de consolidación.

Hoy para nuestra sorpresa nos han dicho que la condición de personal fijo se retrasará al 1 de septiembre. Debido a la dejadez del Departamento de Educación y a la sobrecarga existente en el IVAP, los beneficios de la fijeza no podrán disfrutarse hasta entonces. Entre otras cuestiones, hasta entonces no se podrá solicitar el contrato relevo. Desde LAB hemos planteado varias preguntas en torno al concurso de méritos de la OPE.

Entre otras cuestiones, nos aclaran que para pasar los reconocimientos médicos hay que estar en situación de alta, en caso de estar de baja, estos se pueden retrasar, por lo que no se obtiene fijeza hasta que se acredita mediante reconocimiento médico que es capaz de desempeñar las funciones del puesto.

Una vez superado el reconocimiento médico, la fijeza se puede firmar en situación de baja.

Por otra parte, esta semana se publicará la lista provisional con la puntuación de méritos y los puestos de trabajo que se ofertan.

Una vez finalizado el plazo de reclamaciones y publicados los listados definitivos, el Departamento de Educación quiere que el proceso de adjudicación de plazas se realice de forma presencial.

### Concurso de traslados

Aunque en el Convenio Colectivo vigente se especifica que el concurso de traslados debe celebrarse una vez al año, desde 2021 no se ha hecho. Hoy nos hemos movilizado pidiendo que se convoque el concurso con todas las plazas vacias AQUI y hemos exigido lo mismo en la mesa. El Departamento de Educación nos dice que no va a ofertar todas las plazas vacantes sino que lo va a hacer con las plazas no comprometidas en el proceso de la OPE.



## **Nuevo convenio laboral**

Nos han enviado el borrador del convenio laboral, a falta de algunos anexos, entre ellos los relativos a categorías y sueldos. Desde LAB hemos pedido un calendario para negociar el convenio laboral y nos lo enviarán el 9 de diciembre junto con el borrador completo. En LAB ya tenemos definidos los temas a incluir en el nuevo convenio. [\*\*AQUI\*\*](#)

## **Próxima oferta de OPE**

El departamento de Educación nos ha anunciado que hará una oferta de 34 nuevas plazas. Son las vacantes que han quedado libres por jubilación, incapacidad,... en 2023 y 2024. Teniendo en cuenta la oferta que se hizo el año pasado, tenemos sobre la mesa un total de 72 plazas ofertadas, 33 en limpieza y 39 en cocina.

**Si tienes cualquier duda contacto con nosotros**